Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

415

Otsailak 15, 2022

Desberdintasunarekin loturiko aurreiritzi negatiboak gezurtatu nahi ditu Juncal Cepedak

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Solas Jolas
4 Inauteriak
5 Gazte Landetxa
6 Irungo Pintxo Lehiaketa
7 Juncal Cepeda
8 Kirolak: Aritz Larrarte eta Gorka Pablos
9 Kirolak: Eki Fanlo
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Julen Goikoetxea
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

ECONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO ECONALDIAK
· FAMILIAREN ATSEDENERAKO
· ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
· GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko otsailaren 26an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak garaiko egoera eta errealitatea islatzen ditu. Aldizkaria Horacio de Sarasquetak sinatutako pasarte batekin hasten da, non idazleak "hildako hiri" bat deskribatzen duen. Jarraian, olerki erromantikoen atalean, "Murió el Ensueño" izenburua duen olerkia irakurri daiteke. Real Unión klubeko jokalarien omenez Irungo Kasinoan egindako otorduaz ere irakur daiteke aldizkariaren 339. zenbakian. Eolok idatzitako artikulu luze horretan banketean hitza hartu zutenek esandakoa biltzeaz gainera, ekitaldiaren zergatia azaltzen da. Lehen orrialdearen amaieran, berriz, Gipuzkoako gobernadoreak biraoa gaitzesteko hartu duen jarrera txalotzen da, eta, ondoren, udalak emandako bandoa argitaratzen da, Gipuzkoako agintari nagusiak hartutako erabakia babesten duena.

Bigarren orrialdearen hasieran Kirol Kronika osatzen duten albisteak biltzen dira. Bertan, besteak beste, Realak Pariseko taldea nola garaitu zuen kontatzen da xehetasun guztiekin eta arratsalde horretan bertan Athleticek Amuten Real Unionen aurka jokatuko duen partiduari buruz jakin beharrekoak biltzen dira. Futbola alde batera utzita, Ricardo Rodriguez alkateak sinatutako idatzi baten bitartez Irungo Udalak 18.000 edo 20.000 metro karratuko lursail bat erosteko lehiaketa publikoa antolatu duela jakinarazten da. Lursaila frontoi bat eta kirola egiteko eremu bat sortzeko erabiliko du Udalak. Segidan, "De palpitante interés" idatzian hiriko kirol ekipamendua handitzeko eta osatzeko proiektua zertan datzan kontatzen da. Orrialde amaieran "En el Municipio" atalak azken udal bilkurako erabakiak biltzen ditu.

Azkenaurreko orrialdean, "Glosario" izeneko idatzian "El Arancel del hambre" antzezlanaren estreinaldiaren berri ematen da, bost urtez Espainiako antzokian ikusgai egongo dena. "Un recurso ineficaz" idatziak, aldiz, azken udal hauteskundeen ostean bozketaren emaitzekin pozik ez daudenen ahotsak biltzen ditu. "Ecos de Sociedad" atalak ohiko moduan hiritar dirudun eta ezagunen bizitzetako azken nobedadeak dakartza. Jarrain, aurreko igandean egindako gazteen zozketako emaitzak ageri dira. Publizitatez betetako azken orrialdera salto egin aurretik, izaera ezberdineko albiste laburrak irakur daitezke "Noticias" atalean.

Argazkiak:
57848: Stadium Gal futbol-zelaia, atzealdean Aduana eraikina ikusten da Etorbideko nazioarteko zubiaren hasieran eta, eskuinean, Hendaia (Argazkia 1926. urtearen ostekoa da).
57743: San Juan plazaren bista. Eskuinean, San Martzial kalea eta San Juan Harri zutabea. Erdian, besteak beste, Adiskidetasunaren Kasinoaren egoitza izan zen eraikina eta, ondoren, Zirkulu Liberal Monarkikoarena, 1936ko irailean izandako sutearen ondorioz sugarrek suntsitua.
525223: Banketea Palace Hotelean XX. mendearen hasieran.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

2022ko Solas Jolas programa plazak esleitzeko sistemaren aldaketarekin dator

Miren Echeveste Euskarako ordezkariak eta Josebe Araña Euskara arloko teknikariak Solas Jolas programaren nobedadeak aurkeztu dituzte. Plazak esleitzeko sistemaren aldaketa eta bi txandetan izena emateko aukera kenduta, programak ohiko eskema bera jarraituko du. Bi txandetan banatuko da 2022ko uztailaren 5etik 29ra eta abuztuaren 2tik 31ra, lanegun guztietan eta 09:00etatik 13:00etara izango da. Aurre izen-ematea egiteko epea otsailaren 28tik martxoaren 11ra bitartean egongo da zabalik.

Jakina denez, Solas Jolas udaleku irekiaren helburu nagusia da haurren artean euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntzarekiko duten jarrera hobetzea, eta aurten, ohikoa den moduan. Aurtengo edizioaren xehetasunak azaldu aurretik, Echevestek azpimarratu nahi izan duenez, "hainbat aldaketa egin dira lekuak esleitzeko sisteman, hain zuzen ere eskuragarri jartzen ditugun aukera guztiak betetzen direla errazteko eta kudeaketa lanak arintzeko". Horretarako, Irungo gizarteak dagoeneko ezagutzen duen sistema bat baliatuko dute, nahasteak ekidite aldera. Gainera, Euskarako ordezkariak argi utzi nahi izan duenez "aurten, nahi duten familiek aukera izango dute beren seme-alabak udarako bi txandatan inskribatzeko, betiere izen emateko bigarren epean libre dauden lekuak baliatu nahi badituzte".

Orain arte egin den bezala, lehenik eta behin aurre-inskripzioa egin beharko da, otsailaren 28tik martxoaren 11ko 14:00ak arte ziurtagiri digitalen batekin www.irun.org egoitza elektronikoaren bidez. Bestela, hiriko autozerbitzuko terminalak erabili beharko dira (HAZ, Anakako eta Katea-Ventasko Kutxabank edo Palmera Montero Espazioa), egunero 8:00etatik 22:00etara bitartean. Era berean, 943 50 51 52 telefono-zenbakira deitu ahal izango da, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara bitartean.

Aurrez izena ematean, haurraren datu hauek emango dira: izen-abizenak, helbidea, sakelako telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, ikastetxea, ikasturtea eta ikasten duen hizkuntza eredua, eta haurrak dibertsitate funtzionalik duen edo laguntza premia berezirik duen. Era berean, familiak adierazi beharko du ea Udalari baimena ematen ote dion DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) kobratzen duen edo urteko errenta maila duen egiaztatzeko. Halaber, helburu informatiboetarako bakarrik, nahiago den txanda (uztaila, abuztua edo biak) eta Solas Jolaserako aukeratu nahi den zentroa edo zentroak aukeratuko dira.

Udalak martxoaren 21ean argitaratuko du zozketan onartutakoen behin-behineko zerrenda, www.irun.org helbidean. Gainera, 943 50 51 52 telefonora deituta kontsultatu ahal izango da. Garrantzitsua da zerrendak kontsultatzea eta, akatsen bat egonez gero, Euskara Arloari jakinaraztea. Interesdunek martxoaren 25era arteko epea izango dute egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiteko. Zozketarako behin betiko zerrendak apirilaren 4an argitaratuko dira, eta goian aipatutako bideak erabiliz ikusi ahalko da.

Zozketaz esleitutako hitzorduak
Esan bezala, Euskara Arloak, plaza bera zozkatu ordez, izena emateko hitzorduak zozkatzeko asmoa du, kiroldegietako jardueretan egiten den bezala. Beraz, aurrez izena epe barruan eman dutenen eta programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituztenen artean zozkatuko dira plaza aukeratzeko hitzorduak. Hitzorduak apirilaren 12an zozkatuko dira, eta emaitza egun horretan bertan argitaratuko da, 15:00etatik aurrera. Zozketa egin ondoren, irungo udalak mezu elektroniko bat bidaliko die aurreinskripzio guztien titularrei, hitzordua eta inskripzio-kodea adieraziz, behin betiko inskripzioa egiteko.

Inskripzioak Internet bidez egingo dira Irun Txartela edo beste ziurtagiri elektroniko bat baliatuta, SAC24h zerbitzuaren bidez (www.irun.org/sac), apirilaren 19tik 28ra bitartean, jaiegunak barne, eta, jakina, hiriko autozerbitzuko terminaletan ere egin ahal izango dira (HAZ, Anaka eta Katea-Ventasko Kutxabank eta Palmera Montero espazioa). Zozketan esleitutako hitzorduen hurrenkeran egin ahalko dira inskripzioak; hau da, zozketa bidez esleitutako hitzorduaren unetik inskripzioaldia amaitu arte (apirilaren 28a), aurre-inskripzioan sartutako haurrak une horretan libre dauden bi txandetako batean inskribatu ahal izango dira.

Garrantzitsua da azpimarratzea interesdunak eskatutako datu guztiak betetzen dituenean eta zerbitzuaren prezioa ordaintzen duenean osatuko dela inskripzioa. Interesdunek lehentasuna eman behar diote plaza hautatzeari eta esleitutako hitzorduaren unetik ahalik eta azkarren ordaintzeari –horrela, aukera gehiago dituzte plaza libreetan izena emateko–, eta, aurrerago, informazio medikoa edo adingabearen bila joateko aurreikusi duten pertsonen informazioa gehitu behar dute, emandako kodearekin izen-ematean sartuz. Azken horrek osatuko du inskripzioa.

Izena emateko bigarren aldia
Zozketa bidezko hitzorduak amaitutakoan eta lehen inskripzioaldia itxi ondoren, plaza librerik badago, hitzordurik gabe izena emateko beste aldi bat irekiko da, maiatzaren 2tik 13ra, aurrez izena emanda dauden haur guztientzat. Izena emateko bigarren aldi horretan, haurrak Solas Jolaseko bigarren txanda batean inskribatu ahal izango dira. Eta, bi epeak amaitutakoan, plaza librerik balego, Euskara Arloak izena emateko ezohiko epe bat deitu ahal izango du, beharrezkotzat jotzen badu. Ikastetxeei dagokienez, otsailaren amaieran Solas Jolasentzat eskuragarri dauden ikastetxeen eskaintza jakinarazteko asmoa du Udalak.

Aurten, 4 eta 5 urteko geletako haur hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. maila bitarteko haurrek (2012 eta 2017 artean jaiotakoak) Solas Jolas programan parte har dezakete. Gainera, 2010ean eta 2011n jaiotakoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta aipatutako ikasturteren batean edo 5. edo 6. mailan badaude eta dibertsitate funtzionala badute.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Inauteriekin mozorroak, musika eta ondo pasatzeko gogoa Irungo kaleetara itzuliko dira

2020an Inauteriak ohikotasunez ospatu ziren Covid-19aren pandemiak Irun zein mundu osoa hankaz gora ipini aurretik. 2021ean, ordea, pandemiaren egoerak ez zuen inaute ospakizunetarako aukerarik utzi eta ohiko ekintza guztiak bertan behera gelditu ziren. 2022an, berriz, Irungo Inauterietako jarduera gehienak kalera itzuliko dira, murriztapenak gorabehera.

Gauzak horrela, aurten Irungo Udalaren asmoa izan da Inauterietako egitarauaren barneko ekintza gehienak berreskuratzea, betiere pandemia egoera kontutan hartuta eta, beharrezkoa izan denean, ekimenak egoerara egokituta. Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak adierazi duenez, Eguberrietan Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoekin gertatu bezala, Inauteriak ahalik eta gehien egokitu dira. Kultura ordezkariaren hitzetan, "egoerak eskatzen dituen arretaz eta zuhurtasunez jokatuko dugu, baina, aldi berean, ilusioa eta itxaropena transmititu nahi ditugu gerora begira".

Horrela, 2022ko Irungo Inauteriak prestatzeko Irungo Udaleko Kultura arloa ekintzak antolatu ohi dituzten konpartsa eta elkarteekin bildu da, elkarrekin jarduerak egungo egoerara egokitzeko modua bilatzeko. Izan ere, Irungo Udalaren nahian irundarrek gogoan dituzten inauteriak lehenbailehen itzultzea da. Era berean, Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak inauterien antolakuntzan parte hartzen duten konpartsa eta elkarte guztien jarrera eskertu du, egoera ulertzeko eta murriztapenetara egokitzeko erakutsi duten prestutasunarengatik. "Badakigu ez dela erraza horrelako zerbait prestatzea testuinguru honetan, eta horregatik balio handiagoa du Irungo inauteriengatik egiten duten lanak" gaineratu du Juncal Eizaguirrek.

Inauterien programan hainbat moldaketa egin dira, kontrolik gabeko jende pilaketak saihesteko. Horrela, Kaldereroen Konpartsaren San Juan plazako antzerkia kendu da, Zabaltza plazan ez da Diskofestarik egingo eta Zabaltza plazatik San Juan plazara zihoan Sardinaren Ehorzketaren desfilea bertan behera gelditu da. Era berean, jarduketa protokolo bat idatzi da, erakunde antolatzaileek Inauterietako programako jarduera guztietan beteko dutena.

Otsailak 19, Kaldereroen Konpartsa

Urtero moduan Kaldereroak izango dira Irungo inauterien barnean antolatuko den lehen ekintza. Inauteri aurreko larunbateko 19:00etan Kaldereroen Konpartsa Alberto Anguera plazatik irtengo da, Irungo Atsegiña elkarteak antolatuta. Kaldereroen Konpartsak Irungo kale hauek zeharkatuko ditu: Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki, Colón Ibilbidea, Foru Karrika eta Kale Nagusia, San Juan plazara iritsi aurretik.

Otsailak 20, Inudeen eta Artzainen Konpartsa

Inauterien aurreko igandean, berriz, Eraiki dantza taldeak Inudeen eta Artzainen konpartsa Irungo kaleetara aterako du. Gainera, aurten 25 urte betetzen dira Eraiki dantza taldea Irunen Inudeen eta Artzainen konpartsa antolatzen hasi zenetik. Konpartsa eguerdiko 12:10etan irtengo da Santiago karrikatik, Eskola eta Eliza kaleetatik igo ostean, San Juan plazan atseden txiki bat egiteko. Jarraian, Kale Nagusitik, Foru karrikatik eta Colón ibilbidetik ibili eta gero Zabaltza plazan Musikako Udal Kontserbatorioaren Musika Bandaren laguntzarekin dantza emanaldia eskainiko da. Azkenik, Inudeen eta Artzainen konpartsaren ibilbidea Luis Mariano kalean amaituko da.

Otsailak 24, Ostegun Gizena

19:00etan Zanpantzar konpartsa Alberto Anguera plazatik irtengo da. Zanpantzar konpartsan parte hartuko dute Gaiteroek, Bidasoako Erraldoiek, Irungo Udal Kontserbatorioko Ikasleek, Auntza Trikitrixa Taldeak eta Txingudi Dultzaineroek. Ibilbidea honako hau izango da: Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre eta Geltoki kaleak eta Colón ibilbidea zeharkatu ondoren, Zabaltza plazaraino helduko da. 19:30etan Zabaltza plazan Zanpantzarra jarriko da eta Bidasoako Erraldoiak elkarteko kideek Erraldoien Balsa dantzatuko dute.

Otsailak 25, Ostiral Kaxkarra

20:00etan Amaia Kultur Zentroan 2022ko Inauterietako Konpartsen Aurkezpena egingo da eta emanaldiaz gozatzeko gonbidapena eskuratu beharko da.

Otsailak 26, Inaute Aurrea

Inaute Aurrean baserri giroko inauteriekin loturiko hainbat ekintza egingo dira Irunen. 9:00etatik aurrera Eraiki dantza taldea Bidasoa eta Behobia auzoetan ibiliko da baserriz baserri Puska Biltzea egiten. 9:30etan hasita, berriz, Ibarla Meaka dantza taldea Meakako baserrietan barrena ibiliko da. 10:00etatik aurrera, aldiz, Txorimaloak soinu taldeko kideak Anaka barrena ibiliko dira baserriz baserri. 12:05etan Kemen dantza taldeak antolatutako Euskal-Herri Inauteria Pio XII. Plazatik aterako da. Euskal-Herri Inauteriak Serapio Mugica, Juan Arana, Luis Mariano, Zabaltza plaza, Colón ibilbidea, Foru Karrika eta Kale Nagusitik igaro ondoren, San Juan plazan amaituko dira.

Arratsaldean 17:00etan Letxunborro hiribidetik aterako da inauterietako desfilea eta Urdanibia plazaraino helduko da, bertan Zanpantzar eta 15 konpartsek parte hartuko dutelarik. 20:30etan, aldiz, San Juan plazako inguruetan musika animazioa egongo da Burrunba elektro-txarangaren eskutik.

Otsailak 27, Zaldun Inautea

8:30etan Erdiguneko eta alde zaharreko kaleetan, Irungo Txistulari Taldeak diana berezia eskainiko du Inauteriekin lotura duten hainbat doinu joaz. Goizeko 9:00etatik aurrera baserri giroko inauterietako ekintzak egingo dituzte Irungo zenbait taldek. Zehazki, Egoipar Meaka dantza taldea Meaka auzoan ibiliko da, Meakako Adixkideak dantza taldea Arbeseko plazatik irten eta Meakako auzoan barrena ibiliko da eta Kemen dantza taldea Olaberria auzoan ibiliko da baserriz baserri. Arratsaldean, 17:00etan Inauteriko Desfile Herrikoia egingo da bigarren egunez jarraian. Letxunborro hiribidetik irten eta Urdanibia plazara helduko da berriro ere.

Martxoak 1, Astearte Inautea

Astearte Inautean 19:30etan San Juan plazan Sardina Lurperatzeko eta Zanpantzar Erretzeko ekitaldiak egingo dira. Irun Hiria Musika Bandak, Bidasoako Erraldoiak, Belaskoenea auzo elkarteak, Santiagoko Deabruak eta Ondare Kultur Elkarteak parte hartuko dute bertan. Azken ekintza honekin amaituko dira

Gazte Landetxan familia txiki-handi baten moduan prestatzen eta disfrutatzen dituzte inauteriak

Gazte Landetxa konpartsa 2009an atera zen lehenengo aldiz Irungo inauterietan. Ordutik, ilusio eta gogo berarekin lanean jarraitu dute urtero hiriko kaleetara inauteri giroa eramaten jarraitzeko. Aurtengoan Gazte Landetxak bere hamahirugarren inauteriak biziko ditu, pandemiak eragindako ziurtasun gabeziak gainditu ostean. Konpartsako antolatzaileek Gazte Landetxan itxaropenez beteriko aurtengo inauteriak nola prestatu dituzten azaldu dute.

Zenbat partaide izan ohi dituzue gutxi gorabehera urtero?

Lehenengo urtean 60 lagun izan ginen, konfiantzako gurasoek esan ziguten oso gazteak ginela (18 urte genituen) eta ez zirela gutaz fidatzen. Behin ikusita konpartsa aurrera ateratzeko gai izan ginela, gainontzeko urtetan 300 lagun inguru izan gara eta aurten, pandemia dela eta, 150 animatu gara.

Noiz hasten zarete inauterietako lehen prestaketekin?

Normalean maiatzean hasten gara, auzoko jaiak eta gero. Aurten ez genekienez inauteriak ospatuko ziren ala ez, irailean elkartu ginen eta inoiz baino azkarrago erabaki eta prestatu behar izan dugu dena.

Aurten, pandemiak eragindako zalantzak tarteko, prestaketak zailagoak izan dira?

Zailagoak ez, azkarragoak bai. Hasieratik bagenekien azken momentura arte ez genuela jakingo burutuko ziren ala ez. Dena den, lana betiko moduan egin dugu eta bertan behera geratzen badira, 2023. urterako lana aurreratuta izango dugula uste dugu.

Aurreko urtean inauteririk izan ez ostean, aurten gogo gehiagorekin hartuko dituzue?

Uste dugu denetarako gogo gehiago dugula orokorrean, hala ere guretzat 2021ean inauteririk egon ez arren, on line ekintza asko egin ditugu eta beharbada ez dugu hainbeste sumatu bi urte pasa direla.

Hobeto antolatzeko lana lan-talde txikitan banatzen duzue?

Ez, ez dugu lana banatzen, talde handi bat gara, ordu bat adostu eta elkartzen garenok lanean hasten gara. Batzuk trebeagoak dira josten, mozten, marrazten, dantzatzen, teknologiarekin edo karroza eraikitzen, baina denok dakigu ia denetik egiten. 13 urte eta gero asko ikasi dugu, ondo moldatzen gara eta egiten ez dakiguna badakigu taldeko nori eskatu.

Lana borondatez egiten duzue?

16 bat lagunek hartzen dugu parte antolakuntzan eta bai, egiten dugun lan guztia borondatezkoa da. Irabazirik gabeko elkarte bat gara beraz, bakoitza gure lanetik atera eta elkartean biltzen gara "lanean" hasteko. Ez bakarrik inauterietan, urtean zehar burutzen ditugun ekintza guztietan ere horrela egiten dugu lan.

Inauteri aurreko asteak lan askokoak izan ohi dira?

Ez, badira azken momentuan egin beharreko lanak, musika ekipoa jarri, merienda erosi, generadoreak gasolinaz bete... Baina normalean, gure kasuan, ez ditugu gauzak azken momenturako uzten. Inauteriko astea lasaia izaten saiatu behar gara, astebururako energiak gordez, behar bezala gozatzeko.

Zer da prozesu guztian zailena edo gehien kostatzen zaizuena?

Zailena igandetan entseguetarako goiz jaikitzea da. Zailena agian buruan irudikatzen ditugun mozorroak eta karroza errealitate bihurtzea da.

Zer da Irungo kaleetara ateratzen zaretenean gehien disfrutatzen duzuena?

Dena, Letxunborron zain egotea ere polita da, jendea mozorrotua ikustea, argazkiak egitea, haurren urduritasuna sumatzea, gurasoen ilusioa... gero desfilea Colón pasealekuan erosoagoa da eta bukaera beti da berezia, pixka bat erotzeko momentua.

Zer gai aukeratu duzue aurtengo inauterietarako?

Aurten "El Rey Leon" aukeratu dugu, dena azkar prestatu behar genuen eta animaliaz mozorrotzea errazena iruditu zitzaigun, gainera oso film polita iruditzen zaigu eta abestiak asko gustatzen zaizkigu.

Azken urteetan gainera, inauteriak zuen auzoan errepikatzeko aukera izan duzue. Berezia da zuentzat aukera hori izatea?

Noski. Asko disfrutatzen dugu auzoko desfilean, auzoan egiten dugu bizitza, gure kaleak dira, elkartearen aurretik pasatzea, auzoko helduei inauteriak gerturatzea, etab. Gainera, "seriotasunetik" aldentzeko aukera ematen digu: bikotez aldatzeko edo "Paquito Chocolatero" denok elkarrekin dantzatzeko. Inauteriak primeran bukatzeko aukera politena.

Zergatik animatuko zenukete jendea Irungo inauterietako desfilea ikustera edo bertan parte hartzera?

Egia esan, ikustera ez genuke jendea animatuko, bai ordea parte hartzera. Desfilea ikustea polita da noski, baina parte hartzea ez da bakarrik egun horretan mozorrotzea eta dantzatzea. Parte hartzea lagunak egitea da, haurtzarora bueltatzea da, momentu pentsaezinak bizitzea da, barre egitea da, hunkigarritasunez negar egitea da eta abar. Familia txiki handi baten parte izatea da.

Denok Bat ostalaritza elkarteak Irun Hiriko Lehen Pintxo Lehiaketa antolatu du

Argazkia: fdefoto

Argazkia: fdefoto

Denok Bat ostalaritza elkarteak Irun Hiriko Lehen Pintxo Lehiaketa antolatu du. Lehiaketan hiri osoko ostalariek parte hartu ahal izango dute eta oraingoz 28 establezimenduk eman dute izena. Otsailaren 18tik 27ra pintxoaren ibilbidea antolatu da lehiaketan aurkeztutako pintxoak dastatu ahal izateko eta finala, berriz, otsailaren 28an izango da. Txapelketaren aurretik Danako jatetxeko David Rodríguez sukaldariak ostalarientzako prestakuntza tailerrak eskaini ditu.

Lehiaketaren helburua da Irungo ostalaritza merezi duen lekuan kokatzea, hirian maila handiko sukaldari asko daudela aprobetxatuz. Pintxo lehiaketaren aurkezpenean Susana Fernández Denok Bat ostalaritza elkarteko ordezkariak adierazi zuenez "espero dugu lehiaketa honek oihartzun handia izatea, bai ostalarien artean, bai herritarren artean".

Juncal Eizaguirre Hiri Bultzadako ordezkariaren hitzetan, "ekimen hau Denok Bat ostalaritza elkarteak diseinatu, antolatu eta bultzatu duela azpimarratzea gustatuko litzaidake". Hiri Bultzadako ordezkariak gaineratu duenez, ostalaritzaren sektorea pandemiaren ondorioz garai konplexuan badago ere, horrelako ekintzek egitasmo berriak aurrea ateratzeko gogorik falta ez zaiola erakusten dute. Horregatik, Irungo Udalak ere bere ekarpen ekonomikoa egin du Denok Bat ostalaritza elkarteari lehiaketa aurrera ateratzen laguntzeko.

Irun Hiriko Lehen Pintxo Lehiaketa antolatzeko nahia otsaila hasieran aurkeztu zuen Denok Bat elkarteak eta 28 elkartek izena eman dute dagoeneko lehiaketan. Ostalariek txapelketarako prestatutako pintxoak otsailaren 18tik 27ra dastatu ahalko dira lehiaketan parte hartuko duten establezimenduetan. Lehiaketako pintxoek baldintza bakarra izango dute: pintxoaren prezioa 1,20 eurotik gorakoa ez izatea, eta hortik behera ostalari bakoitzak aukeratutako prezioa jarri ahalko dio. Aste horretan zehar epaimahaiko kideak Pintxoaren Ibilbidea osatuko duten taberna eta jatetxeetatik igaroko dira eta elkartearen akreditazio batekin identifikatuko dira. Epaimahaia eskualdeko zein Euskal Herriko sukaldariek osatzen dute eta otsailaren 26an jakinaraziko dituzte finalerako sailkatu diren pintxoak.

Lehiaketaren finala otsailaren 28an egingo da La Juanita jatetxean eta epaimahaiak aukeratutako 12 finalistak lehen lehiaketa honetako txapeldun titulua lortzen saiatuko dira. Lehiaketaren lehen edizioari zabalpen handiagoa emateko Denok Bat elkarteak fdefoto argazkilaritza markaren sortzailea den Fernando Vergara argazkilariaren laguntza izango du. Era berean,

"Prestakuntzan ikastaroetan ikasitakoarekin ostalariak pozik agertu dira"
Eneko Mitxelena, Denok Bat elkarteko lehendakaria

"Ekimen hau Denok Bat ostalaritza elkarteak diseinatu, antolatu eta bultzatu duela azpimarratzea gustatuko litzaidake"
Juncal Eizaguirre, Hiri Bultzadako ordezkaria

Zehartu enpresako Ricardo Catalanek lehiaketaren finala grabatu eta Youtuben zuzenean emango du.

Aurretiko prestakuntza
Lehiaketarekin hasi aurretik, Danako jatetxeko David Rodríguez sukaldariak prestakuntza tailerrak eskaini zituen. Tailer horiek otsaileko lehen bi asteetan zehar egin ziren Gaztelumendi, Biyena eta La Juanita jatetxeetan eta lehiaketan izena eman zuten parte-hartzaileek izan zuten prestakuntza horietan parte hartzeko aukera. Eneko Mitxelena Denok Bat ostalaritza elkarteko lehendakariak prestakuntzan ikasitakoarekin ostalariak pozik agertu direla adierazi du.

Lehiaketaren aurretik egindako prestakuntza ikastaroek arrakasta handia izan zutela nabarmendu du Eneko Mitxelena Denok Bat elkarteko presidenteak. "Aurretik ezagutzen ez dituzten sukaldaritza modernoko teknikak ezagutzeko eta ikasteko aukera izan dute parte-hartzaileek", gehitu du Denok Bat elkarteko lehendakariak. Ikastaro horiek David Rodríguez sukaldariak gidatu ditu, Gipuzkoa eta Euskadi mailako hainbat pintxo lehiaketetan parte hartu ostean, txapelketetan ikasitakoa ezagutzeko interesa erakutsi duten ostalariei erakusteko. David Rodríguezek adierazi duenez, "batez ere, ostalariek lehiaketetan parte hartzeko beldurra gal dezaten saiatzen gara, parte-hartzeak beren negozioak eta, orokorrean, ostalaritzaren sektorea aberasten dituelako". Rodríguez sukaldariak gogoratu du orain dela urte batzuk Irun eta baita Hondarribiko ostalaritza establezimendu gehiago aurkezten zirela pintxo lehiaketetara. Azken urteetan kopuru horrek behera egin ostean, Danako jatetxeko sukaldariak aurreko parte hartze handia berreskuratzeko nahia adierazi du.

Tokiko izaera duen txapelketa
Denok Bat elkartetik ahalegin berezia egin da, ostalariez gain, pintxo lehiaketaren antolakuntzan parte hartu duten babesle guztiak eskualdekoak izan zitezen. Izan ere, Makro da eskualdekoa ez den babesle bakarra baina % 15eko deskontuarekin lagundu die lehiaketan parte hartuko duten ostalariei. David Rodríguez sukaldariak lehiaketako irabazleek eskuratuko dituzten sariak zerrendatu zituen. Txapeldunak, txapelaz gain, Makrok emandako 300 euroko erosketa-txartela eta Iñigo Lavado jatetxean bazkari bat irabaziko ditu. Bigarren sailkatuak, berriz, 150 euroko erosketa txartela Makroren eskutik eta Ana Mari jatetxean bazkari bat irabaziko ditu. Hirugarrenak, Makron erosteko 50 euroko erosketa txartela eta Mikel jatetxean bazkari bat eskuratuko ditu.

Lehen hiruez gainera, lehiaketak beste 5 kategoria berezi izango ditu. Proposamen tradizional onenaren kategorian nagusitzen denak sukaldaritzako produktu sorta bat irabaziko du. Garagardoarekin egindako uztarketa onenari Tap Room Bidasoak emango dio saria, dastaketa bat egin eta upeltegia bisitatzeko aukera izango baitu. Ardoarekin egindako uztarketa onenaren sariaren kasuan, Vinoteca Mendibilik 5 pertsonentzako dastaketa bat oparituko dio. Denboraldiko produktuaren tratamendu onena egiteagatik hautatzen dutenak 100 euroko balea lortuko du BM supermerkatuetan gastatzeko.

Irun Hiriko Lehen Pintxo Lehiaketak azken kategoria bat izango du, zehazki, Pintxo Popularrarena. Kategoria honetan Pintxoaren Ibilbidean zehar arrakasta handiena izan duen pintxoa sarituko da. Eneko Mitxelena Denok Bat ostalaritza elkarteko lehendakariak azaldu duenez, elkarteak jakinaraziko duen trahola erabiliz sare sozialetan gehien partekatu den pintxoa izango da irabazlea. Denboraldiko produktuaren tratamendu onenaren irabazlea bezala, pintxo popularrenaren egileak BM supermerkatuetan erabiltzeko 100 euroko erosketa txartela eskuratuko du. Beraz, Irunen egingo den lehen pintxo lehiaketak, bertako izearari eusteaz gainera, kontsumitzaileen iritzia ere hartuko du kontuan.

Ezberdintasunen ohikotasuna ardatz izango da "Desberdintasuna bizi" hitzaldian

Otsailaren 17an arratsaldeko 18:30etan "Desberdintasuna bizi" hitzaldia aniztasun funtzionala duten pertsonekin loturiko aurreiritziak apurtzen saiatuko da. Hitzaldia Oiasso Museoan egingo da eta ez da gonbidapenik eskuratu behar bertan parte hartzeko. Hegalak Zabalik fundazioak antolaturik, Juncal Cepeda, Zuriñe Anzola eta Miren Martiarenak parte hartuko dute bertan. Juncal Cepeda irundarrak desberdintasuna bizitzea nolakoa den aurreratu du.

Zertaz hitz egingo duzue otsailaren 17ko hitzaldian?
Hitzaldian hiru emakumeren bizipenak entzungo dituzue, hau da, hiru ohiko emakumeren bizipenak. Izan ere, nahiz eta itxura ezberdina izan edo modu ezberdinean mugitu, hiru ohiko emakume gara.

"Desberdintasuna bizi" tituluarekin zer adierazi nahi duzue?
Uste dut askotan "desberdintasuna" edo "desberdin" hitzak esanahi negatiboarekin erabiltzen ditugula, baina ez dute zertan esanahi negatiborik izan eta beste era batera ere erabil daitezke. Beste modu batean bada ere, gu ere gauzak egiteko gai gara eta hori ez da txarra, baizik eta desberdina.

Zergatik erabaki duzue hitzaldia ukitu umoretsuarekin egitea?
Askotan, konturatu gabe, gure ideiak kexak balira bezala adierazten ditugu, ezta? Beraz, iruditu zitzaigun publikoarentzat horrelako hitzaldi bat entzutea apur bat latza izan zitekeela. Batzuetan beharrezkoa da kexatzea, baina egia da guztiok oztopoei aurre egiterakoan askotan umorera jotzen dugula. Hortaz, errazagoa da guztiontzat umorearekin ibiltzea.

Zergatik gomendatuko zenuke Oiasso Museoko hitzaldi honetara joatea?
Uste dut guztiok aurreiritziak dauzkagula eta gehienetan gezurrak direla. Horregatik, guk aurreiritziei buruz hitz egingo dugu bertan eta horiek desmuntatzen saiatuko gara. Ni irundarra naiz eta kaletik ikusten nauzuenean ziur niri buruzko aurreiritziak izango dituzuela eta baliteke horietako batzuk egia izatea edo ez. Uste dugu garrantzitsua dela benetakoak ez diren horiek gure burutik kentzea.

Aurretik Tabakaleran hitzaldi bera eskaini duzue. Nolakoa izan da esperientzia?
Uste dut jendeari hitzaldia gustatu zaiola, baina ez zuten espero gaia umorearen bitartez landuko genuenik. Harrera ona izan genuen eta, leku handia izan arren, giro beroa sortzea lortu genuen. Egia esan, lehen aldiz publikoaren aurrean hitz egiten duzunean zaila da, baina gero zure burbuilan sartzen zara eta hortik aurrera ez da hain latza.

Hitzaldia ematean zerbait ikasteko aukera izan duzu?
Hitzaldia hiru emakumeren artean ematen dugu eta kideetako bat itsua da. Hitzaldiari esker itsuen bizimodua eta haientzako oztopoak zeintzuk diren jakiteko aukera izan dut. Orain arte ez nituen ezagutzen eta prestaketa prozesuan edo hitzaldian bertan horietaz jabetu naiz.

Aurretik Hegalak Zabalik fundazioarekin harremana zenuen?
Bai, Hegalak Zabalik fundazioari esker igerian ikasten ari naiz. Astean bi aldiz Hegal kirol zentrora joaten naiz eta fundazioari esker lortu nuen igeri egiten ikasteko aukera. Ni betidanik egon naiz gurpildun aulkian eta mugitzeko beti aulkiaren beharra izan dut. Urak nire beste gaitasun batzuk ezagutzeko aukera eman dit eta, askatasuna sentitzeaz gain, lasaitzen laguntzen dit. Oso polita da uretan egotea.

Hitzaldian eguneroko bizipenak edo anekdotak aipatuko dituzuenez, baten bat aurreratu dezakezu?
Bai, adibidez, jende asko dagoen leku berriren batera noanean nabaritzen dut jendeak begiratzen nauela bere buruari galdetuz ea nondik atera naizen edo zer desgaitasun mota izango ote dudan. Irunen oso ezaguna naiz jada eta kalera ateratzen naizenean ez ditut horrelako hainbeste begirada nabaritzen.

Uste duzu oraindik gizartean aniztasun funtzionalarekin loturiko aurreiritziak daudela?
Bai, asko. Nik uste jendeak hiritik normaltasunez mugitzen ikusten gaituela, baina oraindik ez daki nola hurbildu behar duen guregana edo ez daki nola hitz egin behar duen gurekin. Beraz, arazo gehiago ditugu beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko orduan, kalera irteteko ohiturarekin baino.

Gizarteaz gain, espazio publikoak egokitzeko beharra ere azpimarratzen duzue?
Bai, hori ezinbestekoa da bizimodu ohiko bat eraman ahal izateko. Irisgarritasuna hobetzeari esker aukera gehiago eta beste pertsonek adina aukera izango ditugu. Urteak pasa ahala, nabaritzen dut inguruan oztopo gutxiago aurkitzen ditudala, baina oraindik gauza asko hobetu behar dira. Noizbehinka Udalak espazioak irisgarriago izateko lanak antolatzen dituela ikusten dugu eta hori oraindik dena egokitua ez dagoelako da.

Zuk zeuk sare sozialak horrelako gertaerez edo beharrez ohartarazteko erabiltzen dituzu?
Gaur egun ia guztiok sare sozialak erabiltzen ditugu, beraz, oso tresna garrantzitsuak dira bestelako egoerak bertan erakusteko eta niri ere besteen zailtasunak ikusteko balio izan dit.

Zer aldatu beharko litzateke mundu inklusiboago bat lortzeko?
Nik uste dut garrantzitsuena guregana normaltasunez hurbiltzea eta gurekin modu arruntean hitz egitea dela. Azken batean, guztiok gizakiak gara eta, gure desberdintasunak ahaztuta, modu berean jokatu beharko genuke edonorekin.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Espainiako Trinkete Txapelketako txapeldunordeak Ramuntxo Trinketekoak dira

“Orain Gipuzkoako Txapelketaren erdian gaude”
Gorka Pablos, trinketeko jokalaria

“Finalean lortutako emaitzarekin pozik gaude”
Aritz Larrarte, trinketeko jokalaria

Aritz Larrarte eta Gorka Pablos Espainiako Trinkete txapelketan txapeldunorde izan ziren aurreko denboraldian. Pandemiak entrenamenduak eta txapelketak bertan behera utzi arren, oztopoak gainditu eta txapelketaren finala jokatzera iritsi ziren Ramuntxo Trinketeko jokalariak. Aurreko denboraldia amaituta, Larrarte eta Pablos aurtengo trinkete denboraldiaren prestaketan zentratuta daude.

Irungo Kirol Sarietarako izendatuak izan ondoren pozik zaudete?
Aritz: Bai, sorpresa bat izan zen, izan ere, ez genuen espero aurten horrelako txapelketarik antolatuko zenik eta, egia esan, lortutako emaitzarekin pozik gaude. Lehengo urtean txapeldunordeak izan ginen, baina azken urteetan Gorka txapelduna izan da hainbat aldiz, beraz, pozik gaude.

Irundarrak izanda zuen lorpenak baloratzeaz pozik zaudete?
Gorka: Bai, guk lortutakoaz harro sentitzeko sari bat izan daiteke, baina ez da erraza horrelako sari bat irabaztea, izan ere, izendatutako beste kirolarien artean maila altuko kirolari oso ezagunak daude eta.

Nola sentitu zineten Espainiako txapeldunorde titulua lortu ostean?
Aritz: Txapelketa jokatu aurretik bagenekien aurreko urteko txapelketa irabaztea zaila izango zela. Finalean Argentinako aurkari on baten aurka jokatzea egokitu zitzaigula bagenekien eta bera munduko jokalari onenetako bat dela kontuan hartuta, irabaztea konplikatua iruditzen zitzaigun. Hala ere, finala jokatzeko aukera aprobetxatu behar genuen eta partidu polita jokatzen ahalegindu ginen.

Pandemiak txapelketa asko bertan behera utzi dituenez, nola egokitu duzue zuen kirol egoera?
Aritz: Adibidez, nik orain 7 hilabete daramatzat jokatu gabe. Jokatu nuen azkeneko txapelketa aurreko urteko Euskadiko txapelketa izan zen eta azken jardunaldietan istripu bat izan nuenez, orain arte ezin izan dut ezer egin. Orain pixkanaka berriro entrenatzen hasi naiz, lehenbailehen aurretik nuen forma fisikoa berreskuratzeko eta txapelketetara maila onenarekin iritsi ahal izateko.

Txapelketak jokatzea zuentzako helburuak dira?
Gorka: Bai, asko nabaritu dugu 2020an eta 2021ean txapelketa asko bertan behera gelditu zirela. Orain apurka-apurka berriro normaltasuna berreskuratu dugula dirudi. Orain Gipuzkoako Txapelketa jokatzen ari gara eta iaz Espainiako Txapelketa hori jokatzeko aukera izan genuen. Beraz, guretzat oso lagungarria da behintzat txapelketetan parte hartzeko aukera izatea eta horrela errutina antzeko bat izatea. Horrela, egunero jarraipen bat egiteko aukera dugu.

Nola ikusten duzue orain trinketearen egoera?
Aritz: Egia esan, ez dago txapelketa jokatzen duen jende askorik eta oraindik txapelketa munduan dabilen jendea nahiko heldua da. Gazte asko trinketean hasten dira, baina gero kirol hau alde batera utzi eta futbolera edo beste kiroletara doaz. Beraz, egoera ez da batere erraza. Orain badira 4 edo 5 jokalari oso gazte eta oso onak direnak eta haiek izango dira etorkizunean kirol honen erreleboa. Inguru honetan trinketea ez da asko praktikatzen den kirol bat eta, are gehiago, ez da batere ezaguna. Jende askori trinketean jokatzen duzula esaten diozunean ez daki ezta zer den. Horrelako sariak kirola ezagutarazteko aukera ona dira.

Kirola ezagunagoa den heinean gazte gehiago animatuko dira hori praktikatzera, ezta?
Gorka: Bai, azkenean, hemen Espainian gure modalitatea batez ere hemen Irunen jokatzen da. Lehen Aritzek esan bezala, nik eta Anderrek, nire aurreko bikoteak, Espainiako Txapelketa asko irabazi ditugu eta gure aurretik Aritzek eta Asier ere maila horretan ibili ziren. Beraz, trinketean jokatzen duen jendea hemen edo Iruñean aurkituko duzue bakarrik, bestela iparraldera joatea beharrezkoa da aurkari gehiago aurkitzeko.

Zer egin behar da berriro kirol hau sustatzeko?
Aritz: Nik uste eskola kirolean horrelako kirol gehiago sartu beharko liratekeela, behintzat haurrek hilabetean behin bada ere kirol ezberdinak probatzeko aukera izan dezaten. Horrela, kirol berri horiek gustuko dituzten edo ez ikusteko aukera izango dute. Haur gehienek kirola aukeratzeko orduan kirol ezagunenetakoren bat aukeratu ohi dute. Beti daude momentu bakoitzean indar handiagoa duten 4 kirol eta haur gehienak ez dira horietatik ateratzen.

Zein da orain zuen hurrengo erronka?
Gorka: Orain Gipuzkoako Txapelketaren erdian gaude, beraz, txapelketa horretako partiduen prestaketan zentratuak gaude. Gero, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Errioxako selekzioek parte hartuko duten txapelketa batean arituko gara. Horren ostean, Euskadiko txapelketa izango dugu eta, udara aurretik, berriz, Espainiako txapelketa. Udara munduko txapelketa prestatzeko garaia izango da, udara eta gero Mundu Txapelketa baitator.

Eki Fanlo, errugbiko epailea:

“Epailea zarenean jokoaren gainean egon behar zara”

Eki Fanlo errugbi epailea da eta denboraldi honetan mundialeko hainbat partidu arbitratzera iritsi da. Epaile irundarrak errugbi jokalari eta entrenatzaile izan ostean, 18 urterekin epaile izateko bidea jarraitzea aukeratu zuen, kirolean epaile falta zegoela ikusita. Eki Fanlok bere azken kirol bizipenen errepasoa egin du.

Nola erabaki zenuen errugbiko epaile izatea?
Bai, nik uste dut azkenean kirolean epaile falta sumatu nuelako izan zela. Gainera, errugbian epailea jokoaren parte da eta, beraz, eginkizun nahiko interesgarria da errugbi munduan jarraitzeko. Ni hasi aurretik Irunen bi epaile zeuden, Iñaki Campos eta Iñaki Vergara, eta haiengatik erabaki nuen epaile izateko salto hau ematea. Hasiera batean jokalari zein epaile bezala ibili nintzen. 18 urterekin, aldiz, erabakia hartzeko unea iritsi zen eta epaile bidea aukeratu nuen.

Zerk erakarri zintuen epaile lanera?
Epailea zarenean jokoaren gainean egon behar zara eta jokoak bizitasuna izan dezan laguntzen duzu. Ez zara beste kiroletako epaileak bezalakoa, errugbian jokoaren barnean zaude. Beraz, jokalariekin hartu-emana oso gertukoa da beste kirolekin alderatuta.

Hurbiltasun horrek zailtasunak ditu epailearentzat?
Gauza guztietan bezala, hasieran bere zailtasunak ditu. Dena den, behin konfiantza hartuta eta jokoak nola eboluzionatzen duen ikasita, praktikatuz gauzak errazak bihurtzen dira.

Zer behar du epaile batek bere lana ondo egiteko?
Esaten dute beharrezkoa den lehenengo gauza jokoa ulertzea dela. Azken urteetan jokoak nolako bilakaera izan duen jakin behar duzu. Azkenaldian jokoa azkarragoa da, jokalariak sasoi fisiko hobean baitaude, beraz, fisikoki ondo mantendu behar zara. Esperientzia ere lagungarria da eta hori urteak pasa ahala lortzen duzu.

Beste kiroletan bezala, errugbian ere epailea etsaitzat hartzen da?
Ez, errugbia errespetua eta talde-lana bezalako balioetan oinarritzen baita eta hori ere epailearen lanean islatzen baita. Jokalariek badakite epailerik gabe ez dagoela partidurik eta gu ere pertsonak garela kontuan hartzen dute, noizbait erabaki okerren bat hartzen badugu. Errugbia kirol gutxitua da eta gainera, gure lana ez da batere ezkutukoa, izan ere, telebistako partiduetan mikrofonoa erabiltzen dugu jokalariekin hitz egiten duguna entzun dadin.

18 urterekin Ingalaterran epaile lanetan hasi zinen. Nola lortu zenuen?
18 urte bete nituenean Espainiako federazioak egiten dituen truke batzuetan Ingalaterra joateko aukera eman zidaten. 18 urte nituenez jendea apur bat harritu zen hemen geneukan mailarekin. Izan ere, han errugbia beste mundu bat da, txikitatik bizimodu bat delako, txikitatik errugbi taldeetara iritsi arte. Orduan epaile bidetik jarraitzea erabaki nuen eta hemen jarraitzen dudanez badirudi erabaki ona hartu nuela.

Aurten mundialeko hainbat partidu epaitu dituzu. Nolakoa izan da esperientzia?
Azkeneko urte hau nahiko arrakastatsua izan dela esan daiteke, mundialeko partiduetaraino iristea lortu dudalako. Hasiera batean errugbi zazpiko munduko serieak Malagan eta Sevillan egin ziren eta hasiera batean marrazain lanetan ibili behar izan nuen soilik. Bertara iritsi eta lehen partiduan nahiko ondo egin nuenez, bigarren batera eraman ninduten eta bigarren seriea Sevillan zenez, azkenean 6 partidu epaitu nituen.

Nola bizi izan zenuen aukera hori?
Egia esan, beste edozein partidu bezala. Bertan zegoen jendeak konfiantza asko transmititu zidan, gauzak nola egin behar nituen ondo nekiela esan zidaten eta bide beretik jarraitzeko animatu ninduten.

Nola ikusten duzu orokorrean errugbiaren mundua?
Bidasoa ibaiaren bi aldeak konparatuz gero, argi dago Hendaian beti errugbiarekiko zaletasuna igo dela. Azken urteetan, ordea, Txingudi errugbi klubaren bitartez asko lantzen ari dira errugbia eta ondorioz, zaletasuna asko handitu da. Ez da batere erraza, Irunen kirol klub asko daude eta, baina badirudi errugbi klubean egiten ari diren lana fruituak ematen hasi dela.

Zer uste duzu behar dela errugbia sustatzeko bide horretatik jarraitzeko?
Normalean jendeak uste du errugbia kirol arriskutsua dela eta guztiz kontrakoa da. Errugbian segurtasunarekin loturiko arau asko daude eta zerbait aldatzen bada beti hartzen da kontuan segurtasuna. Oso kirol osasuntsua da, lesio gutxi daude eta kirola inguratzen duten balioei esker talde-lana asko lantzen da.

Irungo Kirolaren Sariek laguntzen al dute errugbia bezalako kirolak ezagutarazten?
Bai, noski. Azken baten guk ere Irun asko maite dugu eta Irunen izena mundu osotik eramaten dugu. Hasiera batean nongoa zaren galdetzen dizutenean Donostiakoa zarela esaten duzu, baina zehazki muga alboan dagoen hiri batekoa zarela esaten diezunean jende askok ezagutzen duela konturatzen zara. Jende asko hemendik igarotzen denez eta askok ezagutzen dutenez harro egoteko modukoa da Irunen izena zabaltzeko aukera izatea.

Pirata barbaroak Oiasso inguruan?

-Higerreko anfora: "Higer lurmuturrean topaturiko anfora zatia. Oiasso Museoa"

-Txanpona: "Itsasontzia Komodo enperadorearen txanpon batean. Iturria: https://www.imperio-numismatico.com/t131727-glosario-de-monedas-romanas-galera"

Piraten kontrako borroka gaitz endemiko bat izan zen Antzinaroan zehar. Oktabio Augusto enperadoreak Pax Romana ezartzeko eginiko sekulako ahaleginak Inperio Erromatarraren uretan piraten presentzia modu erabakigarrian murriztu zuen, egoera gisa horretan mantenduz hurrengo mendeetan. Dena den, pirateria ez zen sekula desagertu eta bi motatakoa zela atzeman daiteke: batetik barnekoa, hau da, gizarte erromatarraren magalean sortu ahal zena; bestetik, barbaroa edo jatorria inperiotik kanpo zeuden herrietan zuena. Dauzkagun iturrien arabera, ezin dugu jakin Oiasso inguruan konkista erromatarraren aurretik eta hura gertatu eta ondorengo mendeetan piratik izan ote zen. Baina litekeena da Antzinate Berantiarrean Bidasoaldeak zenbait eraso pairatu izana.

K.o. 406. urteko urtezahar egunean, Rhin ibaia izozturik zegoela probestuz, bandaloak, sueboak, alanoak eta beste herri barbaro batzuk hura gurutzatu eta Inperio Erromatarraren lurretan sartu ziren. Etorri berrien presentziak ekarritako gorabeherek kolokan jarri zuten lehenagotik ere nahiko arazo zituen enperadorearen autoritatea. Hori dela eta, ezegonkortasun politiko eta ekonomikoak gora egin zuen eta, horrek, ordura arte erromatar armadan noizean behin suertatzen ziren errebolta eta usurpazioen ugaritzea ekarri zuen. Ondorioz inperioko mugen zaintza ahuldu eta zenbaitetan bertan behera gelditu zen, herri barbaro gehiagoren mendebalderako migrazioa erraztuz. Testuinguru honetan, ez zen harritzekoa izan jatorri barbaroko pirata taldeen agertzea. Hauek, eskualde inperialak ez ezik, eremu erromatarrera etorri berriek sortu berri zituzten erreinuak ere eraso zituzten.

Kantauri aldea ez zen piraten arpilatzeez libratu. Hori adierazten diguten garaiko zenbait erlijiosoren testigantzak iritsi zaizkigu, sarritan ikuskera apokaliptiko batetik idatziak. Ezagutzen dugun gertakari esanguratsuenetako bat K.o. 455. urtean gertatu zen, Chavesko apezpiku zen Hidaziok idatzitako kronikaren 164. pasartean jasoa:

"Zazpi itsasontzitan etorriak, 400 bat herulo, modu arinean armatuak, Lugoko kostaldean lehorreratu ziren denen harridurarako. Ordea, bertakoen artean bildutako talde handi batek -multitudinis- aurre egin zien itsasora atzera botaz. Talka honetan heruloek bi gizon galdu zituzten. Beren baseetara -sedes proprias- bueltan, Cantabria eta Vardullia-ko kostaldeak ankerkeria handiz arpilatu dituzte -crudelisimme depraedati sunt-".

Iturri idatzien eskasiaren aurrean, Hidaziok aipatzen duen Vardullia hori erromatarrek mende batzuk lehenago karistiar eta baskoien artean kokatzen dituzten barduliar herriaren lurralde gisa identifikatu da. Idatzi hauen arabera, barduliar kostaldeak Deva ibaia zuen mendebaldeko muga gisa eta Urumea - Leitzaran ingurua ekialdean, egungo Gipuzkoaren zati handi bat beraz. Heruloek aldiz, herri germaniarra izaki, jatorria jutlandiar penintsulan zutela uste da, baina Antzinate Berantiarrean zenbait talde Danubio eta Itsaso Beltzaren iparraldean ere topatu ahal ditugu.

Testigantza garrantzitsua dugu ere Clermonteko apezpiku Sidonio Apolinarrek utzitakoa. K.o. 469-470 aldera, Sidonio Apolinarrek Saintesen bizi zen bere lagun Namatiusi idatzitako eskutitz batean (Epist. 8.7.13-15), azken honi adierazten dio jakinaren gainean dagoela bere aginduetara dagoen itsas armada archipiratae saxoniar batzuen pertsekuzioan itsasoratua zela. Saxoiak Jutlandia ekialdearen eta Elba ibaiaren artean kokatzen ziren herri germaniar bat ziren. Aipatutako eskutitz berean, apezpikuak saxoien izaera basatia eta marinel gisa zuten abilezia azpimarratzen ditu. Adibide gisa, zera adierazten du Sidoniok, saxoiek, gatibu hartutako hamar pertsonetatik bat jainkoei sakrifizioan eskaintzeko ohitura zutela itsasora bueltatu baino lehen. Ez dakigu Namatiusen itsas armadak arrakastarik izan ote zuen aipaturiko piraten ehizan, biziraun duten iturri idatziek mutu jarraitzen dutelako.

Oiassoko hirigunean momentuz topaturiko erromatar aztarna arkeologiko modernoenak IV. mendekoak dira. Badirudi hirigunea gainbeheran sartua zela populazio dezente galduz. Hala ere, Higerreko lurmuturrean ur azpian agerturiko materialek bertako itsas trafikoaren biziraupena ziurtatzen dute oraindik V-VI. mendeetan, agian baita nolabaiteko ainguralekuren bat antzinako Oiasson. Beraz, V. mendean oraindik Oiasso populaturik balego, ez litzateke harritzekoa piraten erasoen helburuetako bat hau izatea.

Bestalde, Oiasso Museoan itsasoarekin loturiko behin behineko erakusketa berri bat dugu: Aingura Litikoak Gipuzkoan. Sarrera doakoa da eta erakusketa maiatza arte izanen dugu gurean. Zatoz ikustera!

Jokin Lanz

TOKI ALAI LH2

Denbora-pasak

7 hitz: Euskal Inauteriak

F	I	E	S	F	H	L	I	C	B	P	D	H	Y
W	K	G	C	Z	D	P	V	Q	F	Q	V	V	L
J	N	U	Z	A	M	A	L	T	Z	A	I	N	K
O	X	T	H	M	O	X	K	N	H	W	D	W	O
A	Z	O	B	N	B	C	T	C	A	V	J	S	T
L	I	A	F	A	W	K	Q	Z	R	Y	J	I	I
D	Q	Y	K	C	P	E	N	M	T	M	Z	P	L
U	L	P	F	U	V	Y	V	W	Z	Z	I	H	U
N	W	M	Z	X	Z	W	K	I	A	A	R	Y	N
A	P	D	W	E	Z	A	J	P	G	L	I	A	G
K	Y	P	O	B	R	L	H	S	Z	D	P	S	O
L	Q	J	Q	K	J	I	L	A	R	I	O	V	R
O	R	N	R	J	Q	L	D	W	R	K	T	H	R
Q	O	A	N	P	K	G	I	R	J	O	B	A	I

Joaldunak, Kotilungorri, Zakuzahar, Zaldiko, Zamaltzain, Ziripot, Hartza.

		6		8			1	
	7		4	5			8	
5	9			7	1	4	6	
	3	1	2	4		8		7
4	2							1
8			5	9				3
3							7	
		4						5

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Baratzeko pikuak iru xurten ditu

Baratzeko pikuak iru xurten dittu,
baratzeko pikuak iru xurten dittu,
neskak soñuzaliak ankak ariñ dittu,
Lan laan lan, anak ariñ dittu.

Ankak ariñak eta burua´riñago,
ankak ariñak eta burua´riñago,
dantzan obeki daki artajorran baño,
Ai, ai , ai, arta jorran baño.

Artajorrara nua luberri berrira,
belarrak jorratuta artuak sasira,
Lan lan lan artuak sasira.

Lan lan lan dotia badet baño
La lan lan xardiña bakalau.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959-VII-26). "Amari ikasi nion gaztetan"

(El Bidasoa, 1960-IV-2)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga Euskaraz, Irunen barrena

EGUZKITZA DBH

ARGUDIO TESTUA: ALARDEA

Alardea. Hitzak berak soilik gauza asko ekartzen dizkigu burura. Gaur egun jada tradizio bihurtu den gertaera baten ospakizuna da. Euskal Herriko hainbat lekutan egiten da (edo deitura desberdina daukaten eta antzekoak diren ospakizun/jaiak) eta hainbat desadostasun edo polemika sortu ditu. Betidanik, gizonezkoek bakarrik hartzen zuten parte, baina azkenean, herri eta hiri batzuetan emakumeak ateratzen hasi, eta haiek ere ateratzea normalizatu egin da/zen.

Baina ez denetan. Bi adibide Irun eta Hondarribia dira, eta horietaz hitz egingo dut. Hemen, oraindik ez dute denek begi onez ikusten emakumeak alardean ateratzea, eta ez zait normala iruditzen. Irungo egoera askoz lasaiagoa den arren, ez da nahikoa. Nire ustez, berdintasuna baldin badago gizon eta emakumeen artean, alardean ateratzeko berezko eskubidea izan behar genuke denok, salbuespenik gabe. Nahiz eta aurka dagoen jendea egon, gehiengoa elkartu gaitezke, eta gauzak aldatu. Hala ere, azken horrekin konspirazio batez ari naizela dirudi, konspirazio bat ez dela, argi dagoen arren. Eguneroko errutina bat bezain sinplea da emakumeak alardean ateratzea. Ez dago besterik. Ez dut ulertzen zergatik ikusten duten batzuek hain gauza arraroa. Emakumeak kaleetatik gizonekin batera musika jotzen ateratzea da azken finean. Eta hala ere, ez da onartzen. Nire iritzi, sen ona duen edozeinek ulertu eta onartu dezake/behar du.

Ondorioz, alardea berritu BEHAR dela uste dut, eta denok geure aldetik zertxobait jartzen badugu, esfortzu gutxirekin lortu dezakegula.

Manex Arana.

Julen Goikoetxea, Mundo Hobbit YouTube kanaleko sortzailea:

"Niretzat natura dena da eta zaintzen ikasi behar dugu"

Julen Goikoetxeak "Mundo Hobbit" izeneko kanala ireki zuen 2019ko urtarrilean Youtube plataforman. Orain dela 10 hilabete ordea bideoak partekatzen hasi zen eta 550 jarraitzaile baino gehiago dauzka. Bere nahia plataforman partekatutako edukiaren bitartez baratza eta baserri mundua ikusleei hurbiltzea da. Julen Goikoetxeak Hobbit proiektuaren asmoez eta etorkizunaz hitz egin du.

Nolatan erabaki zenuen proiektua martxan jartzea?
Hazitegia egiten hasi nintzen eta lagun batek etxean egiten nituen gauzak kontatzeko ideia eman zidan. Horrela erabaki nuen prozesu guzti hau grabatzen hastea jendeari kontatzeko horrelako espazio batean zer egin daitekeen. Proiektua hasi eta aurrera jarraitu zuen eta pixkanaka gauzak egiten ari gara.

Aurretik bideoak grabatu edo editatzeko ohiturarik zenuen?
Beno, egia esan, ez nuen gai hauen inguruko ideia askorik. Pixkanaka gauzak probatzen hasi naiz eta baita gauza berriak ikasten proiektuak aurrera egin dezan.

Zergatik erabaki zenuen zure Youtubeko kanalari "Mundo Hobbit" izena ipintzea?
Iruditu zitzaidan izen aproposa zela leku ezberdin batean bizi naizelako eta edukiaren parte handi bat bertan grabatzen dudalako. "Hobbit" izaerako eskualde ezberdin batean bizi garela uste dut eta ideia hori hartuta gauzak egiten hastea erabaki nuen.

Zergatik errepikatzen duzu zure bideoen hasieran "Mundo Hobbit, un mundo mejor" esaldia?
Mundu bakarra dugunez esaldi horren bitartez helarazi nahi dut gure esku dagoela mundu hori konpontzea eta bizileku hobea bihurtzea. Izan ere, munduari gauzak eman beharrean, uste dut soilik baliabideak kentzen eta suntsitzen dizkiogula. Beraz, lehengo belaunaldien bizimodua berreskuratu nahiko nuke. Egun bestelako baloreak dauzkagu, baina nik balore zaharrak berreskuratu nahiko nituzke.

Zure edukia bizi estilo berri bat islatzera bideratua dago?
Bai, hemen apur bat bakartuta bizi naiz, herritik urrutiegi ez nagoen arren, nire munduan isolatuta bizi naizela esan dezaket. Uste dut bakardade hori aprobetxatuz horrelako inguru batean gauza asko egin daitezkeela eta zorte handia dut horrelako eremu batean bizitzeko aukera izateaz. Baratzean oso zoriontsua naiz.

Zer motatako edukia topatuko du jendeak zure kanalean?
Denetarik igotzen dut bertan. Hazitegiaren eraikuntza prozesuarekin hasi nintzen, gero hainbat baratze kontu erakusten joan naiz horrelako bizimodua izatea nolakoa den partekatzeko. Bizimolde oso aberatsa da eta ez nuke nahi galtzerik. Izan ere, nik erakusten ditudan gauzak beste jende askok ere edozein egunetan egin ditzakeenak dira, baina ez dakien horri berak ere nolako gauzak egin ditzakeen erakutsi nahi diot.

Erraza da jendearentzat interesgarria izan daitekeen edukia sortzea?
Nik dakidan guztia kontatzen ahalegintzen naiz. Txikitatik horrelako gauzak gustatu izan zaizkit, baina gero urte batzuez kaletarragoa izan nintzen. Etxe hau erostea erabaki nuenean bizilagunek baratzera gonbidatu ninduten eta asko gustatzen zaidala deskubritu dut.

Uste duzu egun oraindik gazteriak baratzarekiko edo baserriarekiko interesa duela?
Egia esan, inguruan ez da interes askorik nabaritzen, baina ikusten dut baratzean dabilen jendea ingurukoei erakusten edo lagunak baratzea egitera animatzen saiatzen dela. Niretzat natura dena da eta zaintzen ikasi behar dugu.

Urtaro bakoitzeko edo sasoiko produktuak lantzen ikastea garrantzitsua da?
Bai, hori da. Gainera, nik sortutako edukia eguneroko bat izan daitekeela uste dut, horrela hurrengo urtean aurrekoan gauzak nola egin ditudan ikusteko aukera izango baitut. Beraz, gauzak non landatu ditudan ikusi ahalko dut eta baratzearen bilakaerak bertan egin beharreko aldaketak erakutsiko dizkit.

Esaterako, orain otsaila hasieran zer aurkitu dezakegu baratzean?
Orain ilarra jartzeko garaia da eta hori erakutsiko dut nire hurrengo bideoetan. Neguan landatzen den gauza gutxietako bat da, neguan baratzean ez baitago mugimendu handirik. Aldiz, udaberria iristen denean eginbeharrak metatuko zaizkigu.

Jendea gehien erakartzen duen edukia identifikatu ahal izan duzu?
Bai, ohiko edukiaz gainera, atal bereziak egiten ahalegintzen naiz, horrela, eguneroko gauzak kontatzeaz gain, eduki ezberdina sortzeko aukera ematen didalako. Beraz, atal berezi horien bitartez gure hiriari buruzko dokumental txikiak egiten hasi nintzen.

Proiektu honi esker gauza berriak ikasteko motibazioa duzu?
Bai, noski, izan ere, bertan egiten dudan guztia berria da niretzat. Bi urte daramatzat baratzea egiten eta bi urte hauetan gauza asko eta asko ikasi ditut. Bakardadean naturarekin harreman etengabean zaude eta jateko baliabide berriak lortzen ikasten duzu.

Etorkizunerako zer beste ideia dauzkazu buruan?
Udaberria iristen denean baratzeari buruzko gauza gehiago ikasten jarraitu nahi dut. Bideoak grabatzerako orduan ere hobetzea gustatuko litzaidake, adibidez, plano hobeak hartzen ikasteko. Bizi raupenaren esperientzia errepikatzeko asmoa dut eta bideo berezi gehiago sortzen jarraitu nahiko nuke.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Kontsumitzaileen Eskubideen Munduko Egunari buruzko lehiaketa

Irungo Udalak lehiaketa baterako deialdia egin du, 2022ko martxoaren 15ean Kontsumitzaileen Eskubideen Munduko Eguna dela eta.

Lehiaketaren gaia, edizio honetan, zera izango da: "Nola aldatuko zenuke mundua zure kontsumoaren bidez".

Lehiaketa parte hartze librekoa da eta DBH edo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei edo, oro har, 18 urtetik beherako gazteei zuzenduta dago. Irunen bizi behar dute eta/edo Irungo ikastetxe batean ikasi behar dute.

Parte-hartzaileen adina kontuan hartuta, honako bide hauek erabili ahalko dira obrak bidaltzeko:

– WhatsApp" aplikazioa: 688756254

– Posta elektronikoa: omic@irun.org

Parte-hartzailearen izen-abizenak behar bezala adieraziko dira, eta prozesu osoan aurkeztutako obraren erreferentzia izango dira. Obrak 2022ko martxoaren 5era arte bidaliko dira, egun hori barne.

Kategoria bakoitzeko irabazleen sariak honako hauek izango dira:
· Lehenengo kategorian, Smart Watch aurkeztu ahal den bi hizkuntzetako bakoitzeko.
· Bigarren kategorian ordenagailu eramangarri bat aurkeztu ahal den bi hizkuntzetako bakoitzeko.

Etikasi 2022 programarako deialdia



Etikasi Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza-proiektu bat da. Giza duintasunaren giza oinarria ardatz duena eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua dagoena, enpatiaren aldeko hautua eginez.

Programa honen helburua etikari (etika ikasi) eta Giza Eskubideei buruz ikastea da, Ipar Irlandako eta Euskadiko leku enblematikoetara hezkuntza bisitak eginez. Leku horiek giza eskubideen urraketek markatu dituzte, eta bizikidetza erronka gisa ulertzen da, bai tokiko mailan zein globalean.

Etikasiren aurreko bi esperientzien ondoren, aurten bi bidaia egingo dira: bost eguneko bidaia Ipar Irlandara eta asteburu bat Euskadiko herri batzuetan: Pasaian eta Errenterian.

18 eta 30 urte bitarteko EAEko Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko graduko ikasleek izango dute parte hartzeko aukera.

Interesdunek izen-emate fitxa bidaltzeko epea martxoaren 13ra arte izango dute.

Zalantzarik izanez gero, edota informazio gehiago jakin nahi baduzu, deitu 688 737 097 / 945 220 601 telefonora (Ainhoa) edota idatzi bakea@egk.eus helbidera.

Konekta Labs 2022 Jardunaldiak

Konekta Labs 2022ko jardunaldiak martxoaren 4an eta 5ean izango dira, Palmera Monteron (2. aretoan).

Ostiraleko saioa 17:30etatik 19:30etara izango da, eta larunbatekoa 11:30etatik 14:00etara. Ordutegi horiek gutxi gorabeherakoak dira, izan ere, hizlari kopuruaren arabera luzatu edo laburtu egin daiteke.

Saio horietan, titulazio desberdinetako zenbait gazte elkartuko dira ikasketei buruz dituzten esperientziak kontatzeko. Titulazio horietako batzuk dira haur-hezkuntza, kimika, erizaintza, antropologia, lehen hezkuntza, gizarte lana, jarduera fisikoa eta kirola, nekazaritza, nazioarteko harremanak eta zientzia politikoak...

Jardunaldietan, ikasketa horiei buruzko erabakia, helburuak eta itxaropenak, ikastetxe aukeraketa eta ziklo aldaketa bezalako gaiak landuko dira beste hainbat gairen artean.

Formatu honen bidez, esperientziak lehen pertsonan eskaini nahi dira, aurrez aurreko elkarrizketen bidez, etapa berriaren norabidea aukeratu behar duten pertsonen gidari, inspirazio eta motibazio izan daitezen.

Jardunaldi hauek ikasketa berriak hasteko etapan dauden pertsonei zuzenduta daude, bai erdi edo goi mailako LHn, bai unibertsitateko graduren batean.

Jardunaldiak irekiak dira eta edonor da ongietorria. Halaber, hurbileko zentroetan ikasteko dauden aukerei buruzko informazioa emango da, horien liburuxkaren bidez.

Datak: 2022ko otsailaren 18tik ekainaren 7ra.

Ordutegia: 15:30etatik 19:30etara. Guztira, 210 ordu.

Lekua: Irungo La Salle.

Talde hartzailea: Langabeak,15plaza.

Harremanetan jartzeko: formacionempleo@irungolasalle.eus edo 943628411.

LANBIDEk diruz lagundutako ikastaroa da.

"Ingurumen Jasangarritasuna" ikastaroa



OTSAILAK

15

Bisita gidatua

Zer: "Urrutiko ekialdeko musika-tresnak" erakusketara bisita gidatua Lourdes Yarza eta José Luis Loidiren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Sarrera: Doan.

Plaza mugatuak: 13 pertsonentzako lekua.

Izen-ematea: Irungo Udalaren webgunean.

17

Hitzaldia

Zer: Hegalak Zabalik fundazioak "Desberdintasuna Bizi hitzaldia" antolatu du aniztasun funtzionala duten pertsonen bizipenez eta beraiekiko aurreiritziez umorez hitz egiteko.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.
Ordua: 18:30etan.

Sarrera: Librea, aretoaren edukiera bete arte.

Hizkuntza: Gazteleraz.

Hizlariak: Juncal Cepeda, Miren Martiarena eta Zuriñe Anzola, Roberto Herrero moderatzaile lanetan eta Olga Grande aurkezlea.

19

Antzerkia

Zer: "Nire semea pixka bat motelago ibiltzen da" antzezlana Tanttaka Teatroa konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00.

Prezioa: Sarrera orokorra 15 euro. Gazte txartela daukatenentzat, 14 urtetik beherakoentzat, familia ugariko kideentzat eta langabetuentzat 10 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

19

Kaldereroak

Zer: Kaldereroen konpartsak hiriko kaleak zeharkatuko ditu larunbat arratsaldean.

Ibilbidea: Konpartsa Alberto Anguera plazatik irtengo da. Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki kalea, Colon Ibilbidea, Foru Karrika eta Kale Nagusia zeharkatu ostean,San Juan plazara iritsiko da.

Ordua: 19:00etan.

Antolatzailea: Irungo Atsegiña.

20

Inudeak eta Artzainak

Zer: Inude eta Artzainen konpartsak Irungo kaleetan barrena ibiliko da.

Ibilbidea: Konpartsa Santiago Karrikatik irtengo da, Eskola kalea, Eliza kalea, San Juan plaza, Kale Nagusia, Foru Karrika, Colon Ibilbidea eta Zabaltza plaza. Plaza honetan dantza emanaldia eskainiko dute Musikako Udal Kontserbatorioaren Musika Bandarekin. Ondoren, Luis Mariano kalean amaituko da konpartsaren ibilbidea.

Ordua: 12:10.

Antolatzailea: Eraiki dantza taldea.

20

Musika

Zer: Ricardo Requejo zikloaren barnean biolin eta piano emanaldia Ekhi Martinezen eta Irini Gaitaniren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak

F	I	E	S	F	H	L	I	C	B	P	D	H	Y	
W	K	G	C	Z	D	P	V	Q	F	Q	V	V	L	
J	N	U	Z	A	M	A	L	T	Z	A	I	N	K	
O	X	T	H	M	O	X	K	N	H	W	D	W	O	
A	Z	O	B	N	B	C	T	C	A	V	J	S	T	
L	I	A	F	A	W	K	Q	Z	R	Y	J	I	I	
D	Q	Y	K	C	P	E	N	M	T	M	Z	P	L	
U	L	P	F	U	V	Y	V	W	Z	Z	I	H	U	
N	W	M	Z	X	Z	W	K	I	A	A	R	Y	N	
A	P	D	W	E	Z	A	J	P	G	L	I	A	G	
K	Y	P	O	B	R	L	H	S	Z	D	P	S	O	
L	Q	J	Q	K	J	I	L	A	R	I	O	V	R	
O	R	N	R	J	Q	L	D	W	R	K	T	H	R	
Q	O	A	N	P	K	G	I	R	J	O	B	A	I	

2	4	6	7	8	3	5	1	9
1	7	3	4	5	9	2	8	6
9	8	5	6	1	2	7	3	4
5	9	8	3	7	1	4	6	2
6	3	1	2	4	5	8	9	7
4	2	7	9	6	8	3	5	1
8	6	2	5	9	7	1	4	3
3	5	9	1	2	4	6	7	8
7	1	4	8	3	6	9	2	5

Jaunartzeak 2022

ERREPORTAJEA+ ALBUMA

165€ -tik aurrera

Argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
info@fotogover.com
www.fotogover.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GOVER™